

**Merezimendu-lehiaketarako deialdiaren oinarriak**  
**Ingurumen Teknikariaren postua betetzeko**

**Lehenengoa.- Deialdiaren xedea**

Oinarri hauen helburua merezimendu-lehiaketarako deialdia arautzea da hutsik dagoen Ingurumen Teknikariaren postua betetzeko, hauek direlarik postuaren ezaugarriak:

- Deitura: Ingurumen Teknikaria.
- Taldea: A2.
- Maila: 20.
- Osagarri Berezia: 1.323,09 € hilean.
- Hizkuntza-eskakizuna: 4, nahitaezkoa.
- Postuaren egitekoak:

Ingurumen Zerbitzuko Arduradunaren zuzendaritzapean, hauek lirateke bete beharreko zeregin zehatzak, ustiapen-unitate ezberdinetan banatuta:

1. ETXEKO HONDAKIN BILKETA ZERBITZUAREKIN LOTUTAKOAK:

- ✓ Zerbitzu berriak dimentsionatzeko garaian laguntza lanak bete, beharrak identifikatzeko garaian, zerbitzu berrien dimentsionamendua kalkulatzeko, kontratari informazioa pasatzeko, kontratuen aldaketak berridazteko, etab.
- ✓ Bilketa plegu teknikoan idazketan parte hartu.
- ✓ Kontratak emandako zerbitzuen kontrolean parte hartu, kamioiek egindako ibilbideak aztertuz, eguneko parteak ikuskatuz, intzidentziak kudeatuz, erabiltzaileen kexak bideratuz, etab.
- ✓ Kontratak egindako lanengatik pasatako fakturen kontrolean lagundu.
- ✓ Gainontzeko lankideekin batera, zerbitzuan jasotzen diren kexei kasu egin.

## 2. EPELEKO HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN ZABORTEGIAREKIN LOTUTAKOAK:

- ✓ Ingurumen Baimen Bateratuan ezarrita dauden betebeharrak aurrera ateratzeko laguntza eman: isuritako lixibiatu eta gasen kontrolean, kontrol topografikoa eramateko, urteroko Ingurumen Zaintzarako Programa garatzeko, jarraipen meteorologiko lanak egiteko, onarpen eskaeren kudeketan, hondakinen jarraipen frogan kontrolean, etab.
- ✓ IKS-eeM plataformaren barruan, eskaerak kudeatu, onarpenak eman, hondakinen poltsak eguneratu, DMA egin, etab.
- ✓ Ikuskaritza lanetan parte hartu, zabortegiko araudia bete dadin.
- ✓ Plataformaren topografia kontrola eramateko datuak jaso.
- ✓ Obren kontrola eramaten parte hartu, obra zuzendaritzarekin batera bilerak eginez, zertifikazioen kontrola eramanaz, obran sortutako arazoak aztertuz, etab.
- ✓ Zabortegiko funtzionamendu ona bermatzeko prozedura berriak sortu edota hauen jarraipena egin.
- ✓ Zabortegiko erabiltzaileen eskaerak jaso eta aztertu.
- ✓ Obra hondakinak balorizatzeko planta berriaren kudeaketa lanetan parte hartu: ikuskaritza lanak egin, onarpenak eman, obra hondakin metaketak kontrolatu, etab.
- ✓ Hirugarrenek, kokapen honetan egindako lan edo horniketengatik sortutako fakturei onespena eman.
- ✓ Hilero zabortegian emandako sarrerak fakturatu.

## 3. GARBIGUNE ZERBITZUAREKIN LOTUTAKOAK:

- ✓ Instalazio mailan sortutako behar berrien kudeaketan parte hartu, obra txikiak planifikatuz, instalazio berriak ezarriz, diru laguntzak eskatuz, pleguak idatziz, etab.
- ✓ Jasotzen diren hondakinekin egon daitezkeen irizpide aldaketak kudeatzen lagundu: IKS-eeM sisteman hondakin berriak sartuz, logistika berria planifikatuz, prozedurak idatziz, etab.
- ✓ Zerbitzu honetara lotutako fakturei onespena eman.
- ✓ Zerbitzu honetan jasotako hondakinen balorizazioagatik sortzen diren diru sarrerak fakturatu.
- ✓ Garbiguneko erabiltzaileak ezarritako kexa eta eskaerak aztertu.

#### 4. INGURUMEN ARLOKO PREBENTZIO, INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIOAREKIN LOTUTAKOAK:

- ✓ Hondakinen bilketa selektiboaren, sortze-prebentzioaren, berrerabilpenaren eta birziklatzearen arloko jarduerak, informazio eta sentsibilizazio kanpainak eta materialak sustatu, diseinatu, koordinatu eta jarraipena egin; behar denean, beste erakunde eta entitateekin koordinazioan. Ekintza hauekin erlazionatutako fakturak gainbegiratu eta oneritzia eman.
- ✓ Kudeaketa Sistema Integratuen (KSI; Ecovidrio eta Ecoembes) komunikazio fondoak eskuratu, kudeatu eta KSletara bideratutako materialen jarraipena egin.
- ✓ Erakunde ezberdinetako dirulaguntza programak sistematikoki behatu, baloratu, eskaerak prestatu, jarraipena egin, zuriketa prestatu eta fakturak gainbegiratu.
- ✓ Arrasateko Udalaren Ingurumen Eskolarekin elkarlanean, urtero Debagoieneko ikastetxe guztietan egiten den "Hondakinen problematika aztertzen" kanpaina koordinatu.
- ✓ Herritar edo erabiltzaileen informazio beharrak asetzeko bete behar diren lanak aurrera eraman: web orriaren kudeaketa eta eguneraketa, mailing-ak, prentsa oharrak, etab.
- ✓ Zerbitzuaren jarduera eta funtzionamenduaz urtero laburpenak egin, baita txostenak ere.
- ✓ Ingurumeneko zerbitzu guztietako urteko egutegiak prestatzen lagundu (GBN-ak, Epele zabortegia, GBN ibiltaria, traste zaharrak, etab.) eta ezagutzera eman (buzoneoak, herrietako gidak, web orria, mailing-ak, etab.).

#### 5. ZEREGIN OROKORRAK:

- ✓ Zerbitzuetako langileei laguntza eman arauak era koordinatuan interpretatu ahal izateko.
- ✓ Zerbitzu ezberdinetako langileen egutegiak egiten lagundu.
- ✓ Ingurumen arloan irteten diren legedi arau berrien inplantazioan parte hartu: lege testuak aztertu, prozedurak sortu, irizpideak bateratu, etab.
- ✓ Horniketarak, obrak edota zerbitzu berriak kontratatuzko pleguak idatzi eta aurkeztutako proposamenen balorazioetan parte hartu.
- ✓ Lan prebentzio arloan, indarrean dagoen araudia betearazten lagundu, Mankomunitateko prebentzio teknikariak ezarritako agindu eta prozedurak jarraituz.

- ✓ Ingurumen Zerbitzuko artxibo dokumentala kudeatu.
- ✓ Ingurumen Zerbitzuetako bere zereginetan gaurkotuta egon, onuragarriak izan daitezkeen hitzaldi edota ikastaroetara joanez, etab.
- ✓ Ingurumen zerbitzuaren barruan eta arduradunaren zuzendaritzapean, arlo teknikoan kokatzen den edozein gaik eskatzen duen lana bete.

### **Bigarrena.- Hautagaien betekizunak**

1. Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute Debagoieneko Mankomunitatean dauden karrerako funtzionarioek, baldin eta zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan eta seme-alabak zaintzeko lan-utzialdi edo eszedentzian badaude, betiere lanpostuen zerrendan zehazturiko eta deialdi honetan eskaturiko baldintzak eta betekizunak betetzen badituzte. Halaber, aurkeztu ahal izango dira, berriro zerbitzu aktiboan sartuta, Debagoieneko Mankomunitatean dauden karrerako funtzionarioak nahitaezko eszedentzian baldin badaude beste Herri Administrazio batzuetan zerbitzu ematen, eta etenaldian daudenak eta borondatezko eszedentziadunak, betiere bete baldin badute egoera horietarako ezarrita dagoen iraunaldia.

2. Lehiaketa honetan parte hartzeko beharrezkoa izango da A1 edo A2 sailkapen taldeko postua jabetzan izatea eta Ingurumen Zientzia, Biologia, Kimika, Geologia edo balioakidean gradu-titulua izatea, baita B gidabaimena eta 4. hizkuntza-eskakizuna ere.

3. Ezingo dute lehiaketa honetan parte hartu:

- a) Aurreko bi urteetan lehiaketan lorturiko postu baten jabetza hartu duten langile funtzionarioek, jatorrizko administrazioa zein den edo zein kidegotatik parte hartzen duen aparte utzita. Denbora-muga hau salbuetsi egiten da langileak galdua duenean lehiaketan lorturiko postuarekiko atxikipena.
- b) Funtzioen etenaldi irmoan dauden langile funtzionarioek, egoera honek irauten duen bitartean.
- c) Interes partikular edo familia-elkartzeagatik borondatezko eszedentzian egonik, berriro sartzeko eskatzen den gutxieneko denboraldian egon ez diren langileek.

4. Eskaturiko baldintzak betetzeko eta alegaturiko merezimenduak edukitzeko erreferentziazko data deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna izango da.

## **Hirugarrena.- Eskabideak aurkezteko epea eta onarturikoen eta bazterturikoen zerrendak.**

1. Lehiaketa honetan parte hartzeko eskabideak Mankomunitateko lehendakariari zuzendu behar zaizkio, eta eredu ofizialean aurkeztu behar dira; eredu hau Mankomunitateko bulegoetan emango da eta web-orrian ere eskura daiteke.

Eskabideak Mankomunitateko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira 15 laneguneko epean deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik. Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa Legeak 38.4 artikuluan aipatzen dituen bulegoetako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dira.

2. Eskabidearekin batera, deialdian eskaturiko betebeharren egiaztagiriak aurkeztu behar dituzte hautagaiek, dagoeneko horiek Mankomunitatearen esku daudenean izan ezik.

3. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Mankomunitateko lehendakariak hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartuko ditu. Zerrenda horiek Mankomunitateko iragarki-taulan emango dira argitara, baita [www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus) webgunean ere, eta 10 laneguneko epea utziko da ez onartzea eragin duten akatsak, okerrak edo omisioak zuzentzeko, edota argitaraturiko zerrenden aurka erreklamazioak aurkezteko.

Ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten, behin-behineko zerrendak behin betikotzat joko dira. Erreklamazioak baldin badaude, onartuak edo baztertuak izan daitezke beste ebazpen baten bidez, eta honela behin betiko onarturiko zerrendak jendaurrean jarriko dira lehen aipaturiko moduan.

## **Laugarrena. Puntuazioak, baremoa eta merezimenduak**

1. Lehiaketa honetan lor daitekeen gehienezko puntuazioa 25 puntukoa da. Lanpostua lortzeko, gutxienez 15 puntuko kalifikazioa lortu behar da.

2. Postua esleitzeko merezimenduen balorazioa honako baremo honen arabera egingo da:

a) Egindako lanaren balorazioa.

Bete beharreko postuaren funtzio edo eginkizunei lotuta egindako lana balioetsiko da. Gehienez 15 puntu emango dira honela banatuta:

- Lehiaketaren xede den postuaren antzeko eduki teknikoa duen lanpostua betetzeagatik: puntu bat sei hilabeteko.

Egindako lana balioesteko, zerrendaturiko faktoreen arabera, seihileko osoak hartuko dira kontuan eta zatikiak baztertu egingo dira, Mankomunitateko lanpostuetan lanean lorturiko esperientzia bakarrik balioetsiko delarik.

b) Titulazioak eta gradu akademikoak.

Titulu akademikoak izateagatik gehienez 3 puntu emango dira, honako baremo honen arabera:

- Deituriko lanpostuari dagozkion eginkizunekin zuzeneko harremana dutenean: 3 puntu titulu bakoitzeko.
- Deituriko lanpostuari dagozkion eginkizunekin zuzeneko harremanik ez dutenean baina bai deituriko lanpostuaren jarduera-arloarekin: puntu bat titulu bakoitzeko.

Ez da balioetsiko lortu nahi den postuan sartzeko beharrezkoa den titulazioa.

c) Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak.

Deituriko lanpostuari dagozkion eginkizunekin zuzeneko harremana duten gaiei buruzko prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak gainditzeagatik, eta horietan diploma edo/eta da bertaratze-ziurtagiria edo/eta, hala badagokio, probetxu-ziurtagiria eman bada, gehienez 3 puntu emango dira, honako baremo honen arabera:

- 0,1 puntu 20-60 orduko ikastaro bakoitzeko, gehienez 0,6 puntu.
- 0,3 puntu 61-299 orduko ikastaro bakoitzeko, gehienez 0,9 puntu.
- 0,75 puntu 300 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko, gehienez 1,5 puntu.

d) Antzinasuna.

Herri Administrazioetan zerbitzu-urte oso bakoitzeko: 0,20 puntu urte bakoitzeko, gehienez 2 punturaino. Urtea osatzen ez duten zerbitzuak hilabeteka balioetsiko dira proportzioan.

Ondorio hauetarako, herri-administrazioetan karrerako funtzionario-izaera lortu aurretik egindako zerbitzuak ere konputatu egingo dira.

e) Norberaren gradu finkatua.

Lortu nahi den lanpostuarekin erlazioan balioetsiko da gehienez 2 punturekin, honako irizpide honen arabera:

- Gradu bera edo handiagoa: 2 puntu.
- Gradu txikiagoa: puntu bat.

### **Bosgarrena. Merezimendu eta betebeharren balorazioa eta egiaztatzea**

1. Merezimenduak deialdi-oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren dataren erreferentziarekin balioetsiko dira.
2. Eskabidearekin batera, alegaturiko merezimenduen zerrendaren aitortpena aurkeztuko da. Merezimenduak agiri bidez egiaztatu behar dira parte-hartze eskabidearekin, Mankomunitatearen esku daudenean izan ezik.
3. Ezingo da balioetsi eskabideak aurkezteko epean alegatu eta justifikatu ez den merezimendurik, ezta ere, epe horren barruan alegatu arren, geroago justifikatzen denik.

### **Seigarrena. Balorazio Batzordea**

1. Merezimenduen balorazioa eta lanpostua esleitzeko proposamena honako Balorazio Batzorde honek egingo du, agintaritza deitzaileak izendatuta:

Lehendakaria:

- Garapen Agentzia Zerbitzuko arduraduna.

Kideak:

- Ingurumen Zerbitzuko Ustiapen arduraduna
- Ingurumen Teknikaria.
- Langileen ordezkaria.

Idazkaria:

- Mankomunitateko idazkaria.

2. Balorazio-batzordeek adituak izendatzeko eskatu ahal izango diote agintaritza deitzaileari, aholkulari gisa jardun daitezen, hitzarekin baina botorik gabe.
3. Balorazio-batzordeak osatzen dituzten langileak karrerako funtzionarioak izango dira, deituriko lanpostua atxikirik dagoen titulazio-talde berekoa edo handiagoak.
4. Balorazio-batzordeek independentzia osoz jokatuko dute, diskrezionalitate teknikoaren arabera eta objektibotasunez, eta horien proposamenei Administrazioa lotuko dute. Balorazio-batzordeen jarduketak diskrezionalitate teknikoaren arabera

izan daitezkeen arren, beraien ebazpenak araudia eta deialdietako oinarriak betetzeko helburuan oinarritu behar dira.

5. Balorazio-batzordeen eraketa eta jarduketa oinarri hauek ezartzen dutenaren, aplikagarria den araudiaren eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen arabera egingo da.

### **Zazpigarrena. Komunikazioak eta jakinarazpenak**

Balorazio Batzordearen komunikazio eta jakinarazpenak, prozedura honen ondoriozkoak, Mankomunitateko iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuz egingo dira.

### **Zortzigarrena. Esleipen-proposamena**

1. Balorazio Batzordeak esleipen-proposamena egingo du, eta azken puntuazio handiena lortu duenaren alde izan beharko du, betiere hau deialdiaren oinarrietan eskaturiko gutxieneko puntuazioaren berdina edo handiagoa baldin bada.

2. Balorazio Batzordearen proposamena, bere akordioaren bidez, Mankomunitatearen iragarki-taulan eta web-orrian egingo da publiko. Akordio edo erabaki horren aurka lehiakideek erreklamazioa aurkez dezakete hamar laneguneko epean, argitaratu ondorengo lehen egunetik aurrera. Erreklamazio hauek Balorazio Batzordeak ebatziko ditu.

### **Bederatzigarrena. Ebazpena**

1. Balorazioa egin eta, hala badagokio, bere aurkako erreklamazioak erabakita, eskaintako lanpostua esleitzeko proposamena egingo dio Balorazio Batzordeak organo eskudunari.

2. Proposamena jasota, organo eskudunak, onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea aginduko du.

3. Deituriko postua esleitu gabe utziko da bakar-bakarrik inork eskatzen ez badu edo, eskatu arren, inork ez badu lortzen gutxienez eskaturiko puntuazioa.

4. Esleipendunak lehiaketan lorturiko lanpostuaz jabetu behar du eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du, salbu, postuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen, beste destino bat lortu denean deialdi publiko bidez, edo ondoren agertutako ezintasunagatik, edo zerbitzu aktibokoa ez den bestelako egoera batera igarotzeagatik, edo beste kausa berezi batzuegatik behar bezala justifikaturik baldin badaude organo deitzailearen iritziz.



5. Lehiatzaileek, beren borondatez, lehiaketaren prozesu osoan parte hartzeari uko egin diezaioke, betiere esleitu baino lehen egiten badute. Balorazio Batzordearen aurrean erreklamazioak aurkezteko epe bat ezartzen duten deialdietan, epe hori amaitu baino lehen egin beharko zaio prozesuari uko.

6. Atxikitako postua uztea lehiaketaren ebazpena argitaratu ondorengo hiru lanegunen barruan egin beharko da. Salbuespen gisa, epe hori luzatu egin dezake langile-gaietan eskumena duen organoak, behar bezala motibaturiko inguruabarrak gertatzen direnean. Zerbitzu-arrazoiengatik jatorrizko postua lagatzea atzeratu zaion horri konputatu egingo zaio benetan utzi arteko denbora, lanpostu berrian beteriko denbora gisa.

7. Postuaz jabetzeko data aurrekoa utzi eta biharamunekoa izango da. Ebazpenak zerbitzu aktibora berriz itzultzea esan nahi badu, postuaz jabetzea lehiaketaren ebazpena argitaratu ondorengo 3 egunetan egin beharko da. Lanpostuaz jabetzea baimenak, lizentziak, oporrak edo langile funtzionarioak daukan beste edozein zirkunstantzia amaitu arte atzeratuko da, zerbitzu aktiboko egoera mantendu arren beren zerbitzuak benetan ematea eragozten badio. Salbuespen gisa, justifikaturiko eta behar bezala motibaturiko arrazoiengatik, horien gozamina etetea erabaki dezake organo eskudunak. Hala ere, antolaketa-arrazoiak horrela gomendatzen dutenean, esleipendunak lanpostua lagatzeko eta berriaz jabetzeko data zehatza erabaki ahal izango da esleipen-ebazpenean.

8. Lehiaketa honen bidez lanpostua lortzen duen funtzionarioak ezingo du beste lehiaketa batzuetan parte hartu, harik eta lanpostu berriaz jabetu zenetik bi urte igaro arte.

### **Hamargarrena. Araudi aplikagarria**

Oinarri hauetan ezarri gabeko guztian, merezimenduzko lehiaketa honako hauetan ezarritakora egokituko da: uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoarena; abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriena; eta urriaren 13ko 190/2004 Dekretua, Euskal Herri Administrazioetako Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Araudia onartzeko dena.

### **Hamaikagarrena. Inpugnazioak**

Deialdi hau eta bere oinarriak eta hauetatik ondorioztaturiko egintzak aurkatu edo inpugnatu egin daitezke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean ezarritakoaren arabera.

Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 22an.

**EGINBIDEA.- Oinarri hauek Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zituen 2016ko otsailaren 9an egindako bilkuran.**

**Arrasaten, 2016ko otsailaren 10ean. BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA.**  
**Izpta.: Belén Txintxurreta**